

**2016ko AZAROAREN 17ko UDALBATZARRA**  
**PLENO DE 17 DE NOVIEMBRE DE 2016**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:**

**M<sup>a</sup> ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, IXONE TELLECHEA URANGA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

**AITOR ELEXPURU EGAÑA (kanpoan/ fuera de la localidad).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**

**Eguna: 2016-11-17**

**Ordua: 19:35**

**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

**Lugar: Casa Consistorial de BERA**

**Día: 17-11-2016**

**Hora: 19:35**

**Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.**

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-**

**2016.eko urriaren 20an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 20 de octubre de 2016, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- UDAL PLANAREN 2. SEKTOREKO ALDAKETAREN AURKA NEKASARI SA-K JARRITAKO ALTXADA ERREKURTSOAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK BERRESTEA.**

**2.- RATIFICACIÓN ÀLEGACIONES PRESENTADAS EN EL RECURSO DE ALZADA INTERPUESTO POR NEKASARI SA CONTRA LA MODIFICACIÓN DEL SECTOR 2 DEL PLAN MUNICIPAL DE BERA**

*Alkateak gaia azaldu eta gero, aho batez, honako erabakia hartu dute:*

*El Alcalde expone el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**2016ko urriaren 20an Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak bidalitako idatzia jaso zuen Udalak. Idatzi honekin batera, abuztuaren 22an Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Kontseilariak emandako 77E/2016 Foru Aginduaren aurka, Berako Udal Planaren 2. Sektoreko aldatetaren espedientea behin betiko onesten zuenarena, Nekasari s.a. enpresak jarritako altxada errekurtsioa bidali zuen. Aldi berean, nahi izan ezgero, alegazioak aurkezteko 15 egunetako epea eman zion Udalari.**

**Ikusirik udal abokatuak honi buruz eginiko txostena, 2016ko azaroaren 8koa.**

**Emandako epean Alkateak alegazio idatzia aurkeztu du eta, orain, Udalbatzak aurkeztutako alegazioak berretsi egin behar ditu.**

**Hori dela eta. ERABAKI DUTE:**

**1) Abuztuaren 22an Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Kontseilariak emandako 77E/2016 Foru Aginduaren aurka, Berako Udal Planaren 2. Sektoreko aldatetaren espedientea behin betiko onesten zuenarena, Nekasari s.a. enpresak jarritako altxada errekurtsioan Berako Udaleko Alkateak jarritako alegazioak berrestea.**

**3.- UDAL ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

*Alkateak proposatu du aldateta batzuk egiteko udal ordezkarien karguetan. Horregatik, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:*

El 20 de octubre de 2016 se recibió escrito remitido por el Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local al que se adjuntaba el recurso de alzada interpuesto por la mercantil Nekasari s.a. contra la Orden Foral 77E/2016, de 22 de agosto, de la Consejera del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local por la que se aprueba definitivamente el expediente de modificación del Sector 2 del Plan General Municipal de Bera. Al mismo tiempo, se le concedía al Ayuntamiento un plazo de 15 días para la presentación de alegaciones si se estimaba pertinente.

Visto el informe del abogado municipal emitido al respecto de fecha 8 de noviembre de 2016.

En el plazo concedido el Alcalde ha presentado escrito de alegaciones y, ahora, procede la ratificación por el Pleno de las citadas alegaciones.

Por todo lo anterior, SE ACUERDA:

1) Ratificar las alegaciones presentadas por el Alcalde del Ayuntamiento de Bera en el recurso de alzada interpuesto por la mercantil Nekasari s.a. contra la Orden Foral 77E/2016, de 22 de agosto, de la Consejera del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local por la que se aprueba definitivamente el expediente de modificación del Sector 2 del Plan General Municipal de Bera.

3.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES DE LA CORPORACION EN ORGANOS COLEGIADOS DE SU COMPETENCIA.

*El Alcalde propone diversos cambios en los cargos de representación de la Corporación. Así, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Udal eskumenean dauden kide anitzeko organoetako ordezkari hauen izendapena aldatzea ERABAKI DUTE:**

**- Hiri hondakinen Mankomunitatea:**  
Jose Manuel Portu Berasateguioren ordez Josu Irtzoki Agirre.

**- Oinarrizko gizarte zerbitzuaren Mankomunitatea:**  
Josu Irtzoki Agirrereren bidez M<sup>a</sup> Aranzazu Zubieta Ochoteco.

**- Musika Eskola:**  
Jose Manuel Portu Berasateguioren ordez Ixone Tellechea Uranga.

**4.- “NAFARROA ASKATASUNAREN ETA DEMOKRAZIAREN ALDE. FAXISMOARI EZ”ARI BURUZKO MOZIOA.**

*Alkateak mozioaren testua irakurri ondoren honako adierazpenak egin dituzte:*

*- Juan Losa: Ados dago mozioarekin baino bi aldeak begiratu behar dira. Alde bati, bakarrik, egiten dio erreferentzia eta beste aldeak, ezkerak, ere azalpenak eman behar ditu, (Paracuellos, Bartzelonako txekak...) Erantzukizuna denei eskatu behar zaie (Alderdi Sozialista, komunistak, ELA....., hor egon ziren guztiei).*

*- German Castillo:*  
*Suposatzen du Frankoren 40 urtetan Paracuellos eta holakoak ikertuko zituztela. Kasu honetan altxaketa militarra izan zen legez aukeratutako gobernu baten aurka.*

*- Jose M. Portu:*  
*Ezin da parekatu bando bat eta bestea, berak ez zien eskatutako azalpenik diktadorearen*

SE ACUERDA modificar el nombramiento de los/las siguientes representantes de la Corporación en diversos órganos colegiados de su competencia:

- Mancomunidad de residuos sólidos urbanos: Josu Irtzoki Agirre en sustitución de José Manuel Portu Berasategui.

- Mancomunidad de Servicios Sociales de Base: M<sup>a</sup> Aranzazu Zubieta Ochoteco en sustitución de Josu Irtzoki Agirre.

- Escuela de Música: Ixone Tellechea Uranga en sustitución de José Manuel Portu Berasategui.

**4.- MOCION SOBRE “NAVARRA POR LA LIBERTAD Y POR LA DEMOCRACIA. NO AL FASCISMO”.**

*El Alcalde lee el texto de la moción y se realizan las siguientes intervenciones:*

*- Juan Losa: Está de acuerdo con la moción pero hay que ver las dos partes. Sólo se refiere a un bando y la otra parte, la izquierda, también debe dar explicaciones (Paracuellos, las checas de Barcelona....). Hay que pedir responsabilidades a todos (Partido Socialista, comunistas, ELA....., a todos los que estuvieron allí).*

*- Germán Castillo:*  
*Se supone que en los 40 años de Franco lo de Paracuellos y demás habrían investigado. En este caso fue un levantamiento militar contra un gobierno legalmente elegido.*

*Jose M. Portu:*  
*No se pueden equiparar un bando con otro, el no pediría explicaciones a quien ha luchado*

*aurka borrokatu dutenei.  
UPNk ez du inoiz ere deus ere babestu.*

*- Juan Losa: Baita ere 800 hildakoen oroimena izan behar da.*

*- Josu Iratzoki: Haiek egin dute baino UPNk 3.000 hildakoen oroimena egin behar du.*

*- Juan Losa: Azalpenik denei eskatu behar zaie, momentu horietan egon ziren guztiei, bizitzaren eskubidea garrantzitsuena da.*

*Horren ondotik, aho batez, mozioa onartu dute ondoko testua izanik:*

**Inoiz ez zuten demokrazia onartu eta inoiz ez zitzaizkien haien krimenak damutu.**

**II Errepublikaren aurka konspiratzen hasi ziren, ondoren altxamendu militar, zibila eta eklesiastikoa burutu zuten (Gurutzada Santu Nazionala deituz) eta penintsula odol errugabez estaltzen jarraitu zuten haiek bezala pentsatzen ez zutena erahilez, herria eta langileria gerra inzibil krudel batean sakrifikatuz. Ondoren diktadura frankista ezarri zuten.**

**36ko kolpetik 80 urte pasa dira eta hainbeste krimen eta hondamenen egileak, haien oinordeko politikoekin batera, ez dira inoiz epaituak izan, gaur egun inpunitatea osoa dutelarik.**

**80 urteren ondoren, erasoak, pintadak eta mehatxuak ikusten ari ditugu azken hila-beteotan Nafarroan, oroimen historikoa, sindikala, euskara, antiarrazakeria edota sanferminetako peñak bezalako alor sozial ezberdinetan lanean ari diren herri kolektibo eta sozial mota guztien aurka.**

**Ez da hor gelditu. Azken zakarkeria Barne Ministroarena izan da, "Gerra Zibila 40 urte, edo ez dakit zenbat urte geroago irabazi nahi duenik dago" esanez. Zalantzarik gabe, horrekin gerra zibil bat irabazi zutenen**

*contra un dictador.  
UPN no ha apoyado nunca nada.*

*Juan Losa: También hay que hacer memoria de los 800 muertos.*

*- Josu Iratzoki: Ellos la han hecho pero UPN no ha hecho la memoria de los 3.000 muertos.*

*- Juan Losa: Explicaciones hay que pedir a todos lo que estaban en ese momento, el derecho a la vida es lo más importante.*

*Tras lo anterior, por unanimidad, se aprueba la moción siendo el texto el siguiente:*

Jamás admitieron la democracia y jamás se arrepintieron de sus crímenes.

Comenzaron conspirando contra la II República, después consumaron el levantamiento militar, civil y eclesiástico (al que llamaron Santa Cruzada Nacional) y siguieron cubriendo la península de sangre inocente asesinando a quienes no pensaban como ellos, sacrificando al pueblo y a la clase trabajadora en una guerra incivil cruenta. Luego instauraron la dictadura franquista.

Desde el golpe del 36, han pasado 80 años y los autores de tanto crimen y desolación junto con sus herederos políticos jamás han sido juzgados, gozando al día de hoy de absoluta impunidad.

80 años después, en Navarra estamos asistiendo en estos últimos meses a una cadena de agresiones, pintadas y amenazas que han tenido como objetivo a todo tipo de colectivos populares y sociales que trabajan en el ámbito de la memoria histórica, sindical, euskera, antirracismo, peñas sanfermineras...

No se ha quedado ahí. El último exabrupto ha sido el del Ministro del Interior diciendo que "Hay algunos que pretenden ganar la Guerra Civil, 40 o no sé cuántos años después de haber terminado". Por supuesto con ello

**defentsa argia egiteaz gain, demokraziaren aurkako kolpe militar faxistarena egiten du.**

**Halaber, eta Nafarroako Parlamentuak 2013an onartutako Oroimen Historikoaren Foru Legea betez, Iruñeko Udalak Mola eta Sanjurjoren gorpuzkiak, bai eta bertan ehortzirik dauden faxista guztienak haien sendiei itzultzea erabaki du. Bazen orduan, baina bitartean, Emilio Mola haien “zuzendari” izan zen kolpistek erahildako pertsonen milaka senidek, haienak areka eta amildegietan dituzte.**

**Horrekin, nafar herritargoak gure oroimena berreskuratzeko norabidean pauso txiki bat emango dugu, gure duintasuna berreskuratzeko. Egun horrek, Errepublikak defendatzeko borrokatu zutenen aitormena egiteko eguna izan behar du, frankismoaren aurka aritu zirenean.**

**Baina faxismoa ez da oroipen izugarri bat bakarrik, bere itzala luzea baita. Europako mugetan gertatzen dena eta orain dela hamarkada ugaritik hona gertatu izan dena, faxismoaren hazia besterik ez da, berriro ere pertsonak kategorizatuz. Europa hau, ustezko balore demokratikoa, orain gutxi batzuen pribilegioak babesteko gotorleku bihurtua, kapitalaren interesak pertsonen gainetik jartzen dituen Europa da, xenofobiak mozturiko faxismoa da.**

**Faxismo ezkutuagoa ere jasaten dugu, adierazpen askatasuna murrizteko saiakeretan agertzen dena eta, zentzu honetan, moztal legea horren adierazle argia da.**

**Garrantzitsua deritzogu eskoletan eta unibertsitate irakaskuntzan gure historiari buruz argi hitz egitea eta gure herriari hainbeste sufrimendu sortu ziotenak agerian uztea. Norabide honetan pausoak ema-**

expresa la defensa de los que ganaron no una guerra civil, sino un golpe militar fascista contra la democracia.

Asimismo y cumpliendo con la Ley Foral de Memoria Histórica aprobada en 2013 en el Parlamento de Navarra, el Ayuntamiento de Pamplona ha decidido devolver los restos de Mola, Sanjurjo y de todos los fascistas allí enterrados a sus familiares. Ya era hora, pero esto se hace mientras miles y miles de familiares asesinados por los golpistas de los que Emilio Mola fue "El director" tienen a los suyos en cunetas y simas.

Con ello, la ciudadanía navarra daremos un pequeño paso en la dirección de recuperar nuestra memoria, de recuperar nuestra dignidad. Ese día debe ser un día de reconocimiento a quienes lucharon para defender la República, a quienes participaron en la oposición al franquismo.

Pero el fascismo no es sólo un terrible recuerdo, su sombra es alargada. Lo que sucede y viene sucediendo desde hace décadas en las fronteras europeas no es más que el germen del fascismo, otra vez categorizando a las personas. Esta Europa, la de los supuestos valores democráticos, ahora convertida en la fortaleza para proteger los privilegios de unos pocos, es la Europa que antepone los intereses del capital a las personas, es el fascismo vestido de xenofobia.

También sufrimos un fascismo más soterrado, que se expresa en intentos de recortes a la libertad de expresión y, en este sentido, la ley mordaza es una clara expresión de ello.

Consideramos importante que en los centros escolares y en la enseñanza universitaria se hable con claridad de nuestra historia y que se desenmascare a quienes originaron tanto sufrimiento a nuestra tierra. Si damos pasos en

**ten baditugu, belaunaldi berriei etorkizuna askatasunean eta duintasunez bermatu ahal izango diegu egunen batean.**

**Era berean, oroimenaren aitorpena ez da osoa izango, gizarte zeharo demokratikoa, faxismoa bere mozerro berri edo zaharretan gaitzesten duena lortzeko balore errepublikarrak berreskuratzeko gure borondatearen baieztapena bihurtzen ez bada.**

**Gaur, atzo bezala, demokrazia ez da oparitzen zaigun zerbait, egunero borrokatu beharreko zerbait baizik.**

**Horregatik guztiagatik, Udaleko Osoko Bilkurak ERABAKI DU:**

**1.- Iruñeko Udalak Mola eta Sanjurjo jeneral kolpisten gorpuzkiekiko hartutako erabakiari gure babesa adierazi, 1936ko estatu kolpe faxistaren eta hortik eratorritako gure herriaren jazarpen eta krimen guztien arduradun baitira.**

**2.- Hobitik ateratze honen alde azaroaren 19an hamarna bat alderdi politikok, sindikatuk eta erakunde sozialek deitutako manifestaldiari gure babesa agertu bai eta udalerrri honetako bizilagun guztiak animatu bere Udalarekin batera parte har dezaten.**

**3.- Oroimen historikoaren mugimenduak Nafarroan egiten ari dituen ekimenei Udalbatza honen konpromisoa nabarmendu, 1936ko estatu kolpe faxistaren, frankismoaren eta bere diktaduraren ondorioz gertatutako krimenen Egia, Justizia eta Ordaina aldarrikatzeko.**

**5.- AZAROAREN 25a, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA, MOZIOA.**

esta dirección, algún día podemos garantizar a las nuevas generaciones un futuro en libertad y dignidad.

De la misma manera, el reconocimiento de la memoria será incompleto si no se convierte también en una afirmación de nuestra voluntad de recuperar los valores republicanos para avanzar hacia una sociedad radicalmente democrática, que rechaza el fascismo en sus nuevos o viejos ropajes y donde nadie quede excluido del derecho a ser elegido para cualquier puesto del estado, una República.

Hoy, como ayer, la democracia no es algo que se nos regale, es algo por lo que hay que luchar día a día.

Por todo ello, el pleno de este Ayuntamiento **APRUEBA:**

1.- Expresar nuestro apoyo al Acuerdo adoptado por el Ayuntamiento de Pamplona en relación con la exhumación de los cuerpos de los generales golpistas Mola y Sanjurjo, responsables del golpe de estado fascista de 1936 y de toda la represión y crímenes que del mismo se derivaron para con nuestro pueblo.

2.- Manifestar nuestro apoyo a la manifestación en apoyo a esta exhumación convocada por varias decenas de partidos políticos, sindicatos y organizaciones sociales para el 19 de noviembre e invitar a todas las vecinas y vecinos de esta localidad a participar, junto a su Ayuntamiento, en la misma.

3.- Resaltar el compromiso de esta Corporación para con las iniciativas que el movimiento de memoria histórica está realizando en Navarra en exigencia de Verdad, Justicia y Reparación por los crímenes derivados del golpe de estado fascista de 1936, el franquismo y su dictadura.

5.- 25 DE NOVIEMBRE, DIA INTERNACIONAL DE LA ELIMINACION DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES,

*Alkateak irakurri du mozioa eta, aho batez, onartu dute. Hauxe da onartutako testua:*

## MOTIBAZIOA

**Azaroaren 25ean ozenki aldarrikatu behar dugu emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela. Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.**

**Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, jendar-tean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunke-riak; publizistek eta mass-mediak emaku-meen gorputzari ematen dieten erabilerak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.**

**Feminismoak, eta beraz, gure jendarteak, arrakasta handia lortu zuen indarkeria matxista politizatu genuenean, eta, horrenbestez, etxeko gai pribatu bat izatetik jendartearen eta politikaren arlora zabaldu genuenean. Hain zuzen ere, agi geratu denean indarkeria matxistaren jatorria ez dagoela gizon biolento batengan edo burua galdu duen gizon batengan, berdintasunik eta orekarik gabeko jendarte-harreman jakin batzuetan baizik.**

## MOCION.

*El Alcalde lee la moción y, por unanimidad, la aprueban. Este es el texto aprobado:*

## MOTIVACIÓN

El día 25 noviembre es un día para afirmar que, además de rechazar todo tipo de violencia contra las mujeres, rechazamos también todos los agentes generadores de violencia. Porque estamos a favor de crear vidas libres, seguras y soberanas.

Es día para seguir identificando las diversas facetas de la violencia machista, desde las más sutiles y normalizadas por la sociedad, como puedan ser los tocamientos, increpaciones verbales, utilizaciones del cuerpo de las mujeres por parte de publicistas y mass-medias, mensajes y declaraciones sexistas, control sobre la vestimenta, el uso de redes sociales o el círculo de amistades, dificultades para ocupar libremente el espacio público (patios de la escuela, canchas de juego, parques) y decisiones administrativas que atentan directamente contra la equidad entre mujeres y hombres; pasando por las agresiones sexuales y físicas y en los casos más graves por los asesinatos.

El feminismo, y en consecuencia nuestra sociedad, ha conseguido un importante éxito cuando logramos politizar la violencia machista y que ésta dejara de ser considerada un asunto privado, doméstico, para pasar a ser social y político. Cuando se ha evidenciado que en el origen de la violencia machista no se encuentra un hombre violento o que perdió la cabeza, sino unas relaciones sociales desiguales e inequitativas.

**Eta horren harira norbaitek esan lezake egun inoiz baino lege, zerbitzu, salaketa eta politika publiko gehiago dauzkagula eskura indarkeria matxistari aurre egiteko, eta hori egia da. Alabaina, indarkeria hori ez da inondik inora murrizten ari, eta indarrean jarraitzen du gure jendartearen eremu guztietan.**

**Horregatik, esaten dugu desorekak indarrean jarraitzen duen bitartean indarkeria matxista hor egongo dela, botere-harreman desorekatu horiei eustea delako, hain zuzen, indarkeria horren funtsa. Hortaz, emakumea izate hutsagatik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.**

**Horregatik guztiagatik esan dezakegu urte luzetako borrokari esker lortutako berdintasun formala ez dela nahikoa une honetan, eta aurrera jarraitu behar dugula, mikro eta makroindarkeria guztiak identifikatuz eta indarkeria sortzen duten eragileak banan-banan agerian utziz. Eta erantzukizuna emakumeen gainean jarri ordez, beren burua babesteko eta ez arriskatzeko eskatzen baitiegu, edozein eraso sexista sorrarazteko edo saihesten laguntzeko gai diren gizonen gainean jarritz.**

**Berdintasunetik gertuago dagoen beste maskulinitate bat eraiki beharra, jendarte patriarkal hau eraldatu beharra eta subjektibitatea aldatzea aldarrikatu nahi dugulako, emakume eta gizonei buruzko balioespenetan oinarritutako hierarkizazioak ezabatuz.**

**Indarkeria matxista gainditzeko borrokatu beharko dugulako, maskulinitate tradizionalak ezabatu eta desegin beharko ditugulako, adostasun berriak eraikiz, enpatiatik, sororitatetik, aukeratzeko askatasunetik, segurtasunetik, arduratik, berdintasunetik eta elkarrekikotasunetik.**

**Horregatik guztiagatik, Berako udaleko,**

Y en este contexto habrá quien diga que nunca ha habido tantas leyes, servicios, denuncias y políticas públicas para enfrentar la violencia machista; cierto. Pero lejos de disminuir dicha violencia, sigue estando presente en todos los ámbitos de nuestra sociedad.

Por ello decimos que habrá violencia machista mientras perviva la desigualdad, porque esta violencia es la encargada de controlar que dicha desigualdad se mantenga. Y que no lograremos la paz y la normalización en nuestro país mientras haya la mínima probabilidad de sufrir violencia por el mero hecho de ser mujer.

Por todo ello, podemos decir que la igualdad formal lograda tras tantos años de lucha, se presenta insuficiente, y que debemos de avanzar, identificando cada una de las micro y macro violencias, a cada uno de los agentes generadores de violencia. Y dirigiendo el foco de la responsabilidad no tanto en las mujeres a quienes pedimos que se protejan, que no se espongan, sino en los hombres susceptibles de generar cualquier acto de agresión sexista o de poder evitarla.

Porque abogamos por construir otra masculinidad más cercana a la equidad, por redefinir esta sociedad patriarcal, por modificar la subjetividad, eliminando las jerarquizaciones valorativas de mujeres y hombres.

Porque para superar la violencia machista tendremos que combatir, eliminar, deconstruir las masculinidades tradicionales, y construir nuevos consensos desde la empatía, la sororidad, la libertad de elección, la seguridad, el cuidado, la equidad y la reciprocidad.

Por todo ello, el grupo de EH Bildu del

**EH Bilduko taldeak honako mozio hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartua izan dadin.**

**PROPOSAMENA:**

**1.- Berako Udalak 2017ko aurrekontuetan berdintasun-partida handitzeko konpromisoa hartu du, 2017rako 1500 euro aurreikusiz.**

**2.- Berako Udalak tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, prebentzioko udal-/lurralde-plan integrala garatuko du, indarkeria matxistaren adierazpide guztiei aurre egiteko modukoa, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.**

**3.- Berako Udalak, tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, eraso matxisten kontrako protokoloa indartuko du, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.**

**4.- Berako Udalak, Nafar Gobernuari eskatzen dio emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.**

**5.- Erakunde honetatik, hau da, Berako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.**

**6.- Berako Udaletik, bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari**

Ayuntamiento de Bera presenta la siguiente moción para su debate y posterior aprobación en Sesión Plenaria.

**PROPUESTA:**

1.- El Ayuntamiento de Bera se ha comprometido a incrementar la partida de igualdad en los presupuestos 2017.

2.- Este Ayuntamiento de Bera, en colaboración con los grupos feministas y de mujeres locales, desarrollará un plan municipal integral de prevención, que enfrente las diversas expresiones de la violencia machista, activando para ello los medios económicos y técnicos que sean necesarios.

3.- Este Ayuntamiento de Bera, en colaboración con los grupos feministas y de mujeres locales, reforzará el protocolo contra las agresiones machistas, activando para ello los medios económicos y técnicos que sean necesarios.

4.- Este Ayuntamiento de Bera emplaza al Gobierno de Navarra, a ampliar las partidas presupuestarias en materia de igualdad entre mujeres y hombres, a reforzar las direcciones de igualdad, a reforzar las unidades de género de los juzgados y a adoptar el compromiso para revisar la legislación vigente.

5.- Desde esta institución, Ayuntamiento de Bera, reafirmamos nuestro compromiso con la lucha feminista, como vía y herramienta principal para la construcción de una sociedad democrática sin violencia.

6.- Desde esta institución, Ayuntamiento de Bera, nos adherimos a las movilizaciones convocadas por el movimiento feminista para el

**ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.**

día 25 de noviembre, y hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que participe en ella.

**6.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**6.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-**

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

**1) Bandoak: B27/2016.**

1) Bandos: B27/2016.

**2) Ebazpenak: 2016ko urriaren 20ko 205. ebazpenetik 2016ko azaroaren 9ko 220.era arte.**

2) Resoluciones: De la resolución nº 205 de 20 de octubre de 2016 a la nº 220 de 9 de noviembre de 2016.

**7.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:10etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:10 horas.

**O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE**  
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**  
Pilar Chueca Intxusta